

“Magia mota ezberdinez goatzeko aukera bikaina izango dute legazpiarrek”

Txikitatik maitatu izan du magia eta pasio horren lagin bat ekarriko digu laster herrira

ENEKO GUTIERREZ. Magoa

LEGAZPIKO UDALA. Orain dela 22 urte Bilbon jaioa, baina betidanik legazpiarra, txikitatik argi izan du magoa izan nahi zuela. Momentu honetan bere ametsa betetzen ari da eta bere pasioa legazpiarrekin partekatu nahi izan du abenduaren 22an, bere herrian, Latxartegi aretoan, aurrera eramango den magia-galarekin. Adin guztietako jendeari zuzendua, lau magia motaz goatzeko aukera paregabea izango dugula ziurtatzen digu: aho zabalik geratu eta barrez lehertzeko aukera.

-Nondik datorkizu magiarekiko zirrara hori?

-Magia munduan orain dela 10 urte hasi nintzen, 12 urte nituela. Txiki txikitatik gustatu izan zait; magia asko ikusi dut, pailasoak, zirkoa, magoak... Txikitatik liluratu izan nau eta 12 urterekin magia ikasteko aukera zegoelaz ohartu nintzen: pailazo izaten ikasi, zirkoa ikasi... eta konkretuki magiarekin hasi nintzen, nire kabuz. Tamariz magoa asko ikusten nuen, liburuak erosten nituen nire kontu... zazpi urte magia egiten eman nituenean (19 urterekin) oholtza batera igotzeko saltoa emateko prest nengoen; han hasi eta gaur egun arte. Momentu honetan nire lanbidea da eta aldi berean ere ikasten jarraitzen dut, Arte Eszenikoak. Hirugarren ikasturtean nago, datorren urtean zer egingo dudan espektatibarekin. Aktore izateko prestatzen nago, eta pelikula bat egin dut dagoeneko, “Nina” deitzen da eta 2024an estreinatuko da. Ikasketa hauek amaitzerakoan ziur asko Clown ikasten hasiko naiz.

-Ez duzu lanbide arrunta, etxekoek zer diote?

-Gurasoek 19 urterekin ulertu zidaten, baina ordurarte kondizio batzuk bete behar izan nituen: “behintzat erdi mailako ikasketa batzuk egin itzazu”, esan zidaten. Kasu egin nien eta ikasketak amaitu nituenean buru belarri sartu nintzen mundu honetan. Oso garbi neukan. Orain gurasoek guztiari baietz esaten diote; nire ondoan ditut, beraz, oso ondo.

-Nondik dator horrelako magia-gala bat egitearen ideia?

-Legazpiarra naiz eta gaur Legazpin bizi naiz. Domingo Agirre eta Olazabalen ikasi nuen eta orain Donostian nabil ikasten baina joan eta etorri egiten dut. Festibal pila batera joan izan naiz eta beti pentsatu dut horrelako zerbait Legazpin egitea primerakoa izango zela. Nire ideia aurkeztu nuen eta aurren posible izan da, eta oso pozik nago; gainera mago oso onak ekarri ditut, oso lagunak



Eneko Gutierrez. Mago legazpiarra

direnak. Oso ondo irtengo dela uste dut.

-Saioa haurrentzat girotuta dago edo adin guztiei zuzendutakoa da?

-Saioa edonorrentzat da. Haurrak oso ondo pasatuko dute baina nagusiek ere ederki pasatzeko aukera izango dute. Peiok egingo duena ez da edozein lekutan ikusten, bere txapelketetako magia zenbakia ekarriko du honek eta Europako saria internazionala irabazi du, besteren artean. Honekin bai heldu eta baita haurrak ere ahozabalik geratuko dira. Potx-ena ere primerakoa izango da, parrez lehertuko gara; eta Mariak saio magiko-poetikoa egingo du. Nik magia komikoa egingo dut.

-Zer esango zenioke jendeari Latxartegira hurbiltzeko?

-Magia-gala oso onaz goatzeko aukera izango dutela esango nieke. Hainbat artista buruan nituen eta aukeratu ditudan hauek primerakoak dira. Magia mota desberdinaz goatzeko aukera izango dute, bakoitza bere estiloarekin; oso polita izango da.